

## Erakusketa eta ekintza osagarrien deialdia **“EKAITZAREN OSTEAN”**

“Ekaitzaren ostein” izenburupean aurkezten da Bilboko Udalak Bilbao Arte Fundazioarkin batera sustatutako erakusketa artistikoko proiektu bat.

1. Bizkaiko sektore artistikoari laguntzeko deialdi honen helburua Covid 19ren eraginaren eta horrek dakarren erantzun sozial, ekonomiko, politiko eta artistiko konplexuari lotutako erakusketa bat edo gehiago egitea da. Hautatutako proposamenen edukiak aipatutako prozesu historikoari lotutako adibideak, ikerketak eta/edo gogoetak izanik. Proposamen horiek egileek zehazten duten edozein adierazpen eta lengoaia plastikotan egin ahal izango dira, eta lanak aldi-baterako erakusketaren epean aurkeztuko dira.

2. Erakusketa-piezekin batera, erakusketa aberastuko duten beste ekintza osagarri batzuk erantsi ahal izango direla aurreikusten da: ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, bisita gidatuak, jarduera performatiboak, etab. Jarduera paralelo horiek guztiak arestian aipatutako proposamenarekin batera egin beharko dira.

### **1 / ERAKUSKETA PROPOSAMENA**

2.000 euroko 25 laguntza emango dira ordainsari gisa. Hautatutako proposamen guztien artean 5.000 euroko 5 sari ezarriko dira ezarritako epaimahaiaren iritziz proiektu artistiko gailentzat, eta erakusketa(k) hasi aurretik jakinaraziko da.

Hautatutako pertsonak ekarpenaren %75 jasoko dute onartuak izandakoan, eta gainerako %25a erakusketa egiten denean.

Sarien zenbatekoa jendaurrean aurkezten den unean ordainduko da.

Proiektuek sorkuntza artistiko plastikoari lotuta egon behar dute, nahiz eta ikasketa teorikoen garapena ere barne har dezaketen. Hori epaimahaiak positiboki aitortuko duen ezaugarria izanik.

Lan horiek 2021eko lehen hiruhilekoan jarriko dira ikusgai, onartutako proposamenen eta haien izaeraren arabera zehaztuko diren lekuetan.

Era berean, Bilbao Arte Fundazioak bere gain hartuko ditu erakusketa(k) muntatzeko, aseguruak egiteko eta obrak garraiatzeko gastuak, bai eta hautatutako proiektuen beharrezkoen araberrako ekipamenduaren gastuak ere.

Artistaren erantzukizuna izango da aurkeztutako proposamenaren ekoizpena. Lana bere jabetzakoa izango da soil-soilik, eta erakusketa egin ondoren, egokien deritzona egin ahal izango du. Proiektuak erreproduzitzeko eta zabaltzeko eskubidea emango da, parte hartzea onartzen denetik erakusketa(k) itxi arte.

Obra ekoizteko gastuak sortzaileen erantzukizuna izango dira.

Mugikortasun- eta egonaldi-gastuak, beharrezkoa izanez gero, artistak ordainduko ditu.

Hautatutako pertsonak Bilbao Arte Fundazioko artista erabiltzaileen doako eskubidea eskuratuko dute, eta Bilbao Arteko langileen laguntza teknikoarekin eta instalazioen barruan proiektu horiek zehazteko beharrezkoak diren lanak egin ahal izango dituzte.

## **2 / JARDUERA OSAGARRIAK**

Ez dira ezinbestekoak, baina positiboki baloratuko dira esku-hartze artistikoak bitartekaritza- edo formakuntza-jarduerekin lotutako ekimenak.

Bitartekaritza edo formakuntza proiektu osagarrien koordinazioa Bilbao Arte Fundazioaren bidez bideratuko da.

Era berean, proiektuetan sartzen diren jarduera osagarrietan, Bilbao Arte Fundazioak, ahal den neurrian, behar diren esku-hartze espazioak eta ekipoak emango ditu. Era berean, bertaratutakoek matrikula bidez ekarpenak egiten badituzte proposatzen diren aparteko jardueretan (ikastaroak, tailerrak...), diru-sarrera osoak jarduera horiek sustatzen dituzten pertsonentzat izango dira.

## **3 / PARTE-HARTZAILEAK**

Adin nagusiko, Bizkaian jaio edo bizi diren artista guztiek parte hartu ahal izango dute, adin mugarik gabe.

Egile-talde baten lana hautatuz gero, guztiek bete beharko dute Bizkaiko bertakoak izateko edo probintzian erroldatuta egoteko baldintza. Ordezkaritza bat izendatu beharko dute. Ordezkaritza horrek izango du Bilbao Artarekin harremanetan egoteko ardura, eta hark adieraziko du, gainerako egileek idatziz baieztatu ondoren, zenbatekoaren banaketa ekonomikoa eta lanaren erosketa egiteko modua.

Kanpo geratzen dira 2020. urtean Bilbao Arte Fundazioan BBKren beka jasotzen ari diren proiektuak eta ekoizpenerako laguntzak. Hala ere, egoera horretan dauden artistek, Fundazioan egiten ari diren proiektutik kanpo, beste proposamen plastiko bat egin ahal izango dute.

Ekimen hau edozein bitarteko eta euskarritan zabaltzeko, artistek hautatutako proiektuak ustiatzeko eta erakusteko eskubideak lagako dituzte.

Pertsona bakoitzeko proposamen bakarra onartuko da.

#### **4 / DATAK**

Deialdi honen epea ekainaren 10ean irekiko da eta 2020ko uztailaren 20an itxiko da eguerdiko 12etan (gtm+1). Epez kanpo ez da bidalketarik onartuko.

Epaimahaiaren ebazpena deialdia itxi eta 30 egun naturaleko epean emango da, eta parte-hartzaile guztiei modu pertsonalean eta jendaurrean emango zaie argitara, komunikabideen eta Bilbao Arteko webgunearen bidez hautatutakoek zerrendarekin.

Lanak 2021eko lehen hiruhilekoan erakutsiko dira, epaimahaiak, komisariotza-talde batek eratuak, erabakitzen duen moduan eta ordenean.

#### **5 / SARIAK**

Erakusketa ireki ondoren, eta itxi baino lehen, epaimahaiak 5 lan finalista hautatuko ditu, erakusketako proposamen guztien artean aukeratuak. Erabakia ekitaldi batean jakinaraziko da eta finalista bakoitzak 5.000 euro jasoko ditu lanaren truke.

Proposamen batean hainbat lan eta pieza ezberdin egongo balira, egileak adierazi beharko luke zein pieza edo piezak saldu nahiko lituzkeen.

Ikus-entzunezko lanen eta/edo serie-proposamenen kasuan, egin beharreko kopien kopurua adierazi beharko da, eta horiek legez egiaztatu beharko dira.

#### **6 / PROIEKTUAREN BETEKIZUNAK**

Parte-hartzaile bakoitzak, edozein izanik adierazpen artistiko plastikoa, lan argitaragabe bat aurkeztuko du, izen-emateko unean amaituta egon daitekeena edo ez. Epaimahaiak hautatutako deialdira aurkeztutako proiektua ezin izango da "funtsean" aldatu laginean azaldutako obratik, eta edukian nolabaiteko lotura izan beharko du Covid 19ak eragindako krisiarekiko inpaktu sozial, ekonomiko, politiko eta/edo pentsamenduari dagokionez.

Lana erabat amaitzeko epea 2020ko abenduaren 15ean amaituko da. Aurkeztutako proiektua amaituta badago, ezin da pandemia hasi baino lehenagokoa izan, eta ezin da alde zuzenetik, ezta erakusketa ireki arte ere erakutsi.

## 7 / IZEN-EMATEA

Eskaera guztiak posta elektronikoz bidez aurkeztuko dira convocatorias@bilbaoarte.org helbidera, helbide elektronikoaren gaian honako hau adieraziz: "Tras la tormenta / Ekaitzaren ostean".

Erantsitako inprimakia bete eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- CV eta NANaren fotokopia eta/edo Bizkaian errolatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Aurkezten den proiektuaren laburpena (gehienez 1.500 karaktere, espazioak barne), dagoeneko ekoizita dagoen proiektu plastiko edo bisualaren material grafikoarekin eta/edo beste edozein material osagarriekin batera: proiektuaren irismena eta izaera hobeto hautematen laguntzen duten marrazki, eskema edo grabazioak.

Antolatzaileek era guztietako lanak aurkeztu ahal izango dituzte deialdi honetan, muga artistiko eta teknikorik gabe.

## 8 / FORMATUAK

Eskabidea formalizatzeko Internet bidez bidal daitezkeen materialen formatuak honako hauek dira:

- Irudia: JPG edo PNG formatua, RGB, 8bits.
- Audioa: MP3 edo m4a.
- Bideoa: flv/mp4/mov/avi formatuak.
- Proiektuari buruzko informazioa zabaltzen duten beste dokumentu batzuk: PDF edo docx.

Gainera, aurretik egindako lanak material lagungarri gisa erantsi ahal izango dira, goiko puntuetan adierazitako ezaugarriei jarraituz.

## 9 / LANEN ESKAERA

Epaimahaiak lehiaketara aurkeztutako lanak fisikoki ikusteko eta/edo proiektuari buruzko informazioa zabaltzeko eskatu ahal izango die parte-hartzaileei, beharrezkotzat jotzen badu.

Kanpo geratuko dira...

- Edozein motatako eskubideak edozein modutan konprometituta dauden proiektuak.
- Beste lehiaketa batera aurkeztutako proiektuak, sarituak izan ala ez.

Deialdira aurkezte hutsak artistak oinarri hauek onartzea eta ezagutzea adierazten du.

## 10 / EPAIMAHAIA

Epaimahaia arte munduko profesionalak osatuko dute eta 25 proiektu aukeratuko dituzte **Ekaitzaren ostean/Tras la tormenta** erakusketarako. Era berean, epaimahaiak aktiboki hartuko du parte, komisario-agente gisa, aurkeztutako lan guztietatik ateratzen diren erakusketen diseinuan.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiaren erabakia saritutako artistei jakinaraziko zaie posta elektronikoz.

## 11 / BILBAO ARTE FUNDAZIOAREN BILDUMA

Lan irabazleak BILBAO ARTE Fundazioaren Bildumaren parte izango dira, ondare-eskubide guztiekin, erreprodukzio-eskubideak barne. Lagapen hori berariazko kontratu bidez formalizatuko da erakundearekin.

## 12 / KONFIDENTZIALTASUNA

Bilbao Arte Fundazioak deialdian aurkeztutako dokumentazioaren konfidentzialtasuna bermatzen du. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutako datu pertsonalen babesa betetzen dela bermatzen da, lege horren aplikazio-eremuan sartzen diren datuetarako.